BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2015/12/01

# Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1807an Bizkaiko Jaurerriak agindutako aita Lerinen Foruei buruzko argitaratu bako azterlana argitaratu dabe

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak, José María Gorordok lagunduta, 1807an, Bizkaiko Jaurerriak aginduta, Fray Domingo de Lerin y Clavijok idatzi ebazan eta bitxia bada be beste artxibategi batzuetatik desagertu egin ziran esku-izkribuei buruz Bilboko alkate izandakoak egin dauen argitalpena aurkeztu dau gaur Bilbon. Bertan, Arabako Bolibarren eta Donemiliagan egin ebazan hainbat urte euskal foruak aztertzen emon ebazan fraideak, XIX. mendean euskal foruak indar barik izteko oinarri intelektual sendoena izan zan eta Juan Antonio Llorentek idatzi eban "Noticias Históricas de las Tres Provincias Vazcongadas" lanaren liburukietan esaten danari kontra egiten deutso.

Lerinen ohar kritikoak Jose Maria Gorordok aurkitu ebazan –Llorenteren beste lan batzuk bilatzen ari zala, hain zuzen be– eta garai haretan Batzar Nagusietako presidentea zan Ana Madariagari jakinarazo eutsan aurkitutakoa, eta Bizkaiko Batzarretako arduradunak Errioxako monasterioagaz hartu emonetan jarri ebazan, lan horreek argitaratzeko modua aztertzeko. Gorordo izan da argitalpen horren koordinatzailea. Bertan, egilearen berbetan, banan-banan egiten jake kontra Llorentek idatzitako liburuki guztiei. Laburbilduz, aita Lerinek hiru Lurralde Historikoen eskubideakaz jarraitzearen alde egiten dau lan, foruen kontrako burrukalari nabarmena izan zan Juan Antonio Llorenteren lanaren kontra agertuz.

Ana Otaduik joan dan astean emon eutsazan liburu horren lehenengo aleak Donemiliagako monasterioko (Errioxa) fraide prioreari, aita Pedro Merinori, eta beragaz batera, Domingo Lerinen paperak eta komentuan kontserbetan diran beste ondare altxor batzuk ikusi ahal izan ebazan. Gaur, Jose Maria Gorordo ikerlanaren egileak eta Mitxel Unzueta interesik bako laguntzaile eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del País erakundearen Bizkaiko Batzordeko presidente izandakoak lagunduta, Lerinen testuen agerpena "ezusteko atsegina" eta Bizkaiko Batzarretako presidente danetik bizi izan dauen "esperientzia parebakoa" dala azaldu dau.

Errioxan dagoan komentuko aita Merinori eta aita Olarteri "interesik bako laguntzarengaitik", José Mari Gorordori "aktibismoagaitik eta zorroztasunagaitik" eta bere aurretik Batzarretako presidente izan zan Ana Madariagari "kulturaren aurrean erakutsi eban sentsibilidadearengaitik" eskerrak emon ostean, Batzar Nagusietako hitzaldi aretoa beteten eban jende askoren aurrean aurkeztu dan argitalpenak, XIX. mendean euskal foruak indar barik itzi ebezan foruen kontrako tesiei kontra egiten deutsen "hutsune historiografikoa ixtea" dakarrela adierazo dau Otaduik.

Argitalpen horren bitartez, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Otaduiren berbetan, "gure Eskubide Historikoen kontzeptu zabala indartzen dabe, subiranotasuna eukien errealidade biren arteko hitzarmenean oinarritutakoa", hain zuzen be. Gaur egun, XIX. mendearen hasieran planteau ziran Fray Domingo de Lerinen tesiek "balioa izaten jarraitzen dabe, 1878an indar barik itzi zan Foru araubidearen azken aztarnea dan Kontzertu ekonomikoa Euskaditik kanpo zalantzan jarten ari dan honetan, baina baita be "foru nazino" kontzeptuak bide barriak zabaldu ahal dituanean,

albo bikotasunetik, 1978ko Konstituzinoan eta Autonomia Estatutuan autortuta dagozan eskubide historikoak eguneratzeko.

NOTA DE PRENSA
01/12/2015

# Juntas Generales de Bizkaia presenta una publicación del valioso e ingnorado trabajo sobre los Fueros del padre Lerín, encargado por el Señorío de Bizkaia en 1807

La presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha presidido hoy en Bilbao el acto de presentación de la publicación de José María Gorordo sobre los manuscritos originales que el Fray Domingo de Lerin y Clavijo escribió por encargo del Señorío de Bizkaia en el año 1807, y que habían desaparecido durante más de un siglo. En ellos, el fraile, que dedicó varios años de su estancia en Bolívar (Álava) y en San Millán de la Cogolla al estudio de los Fueros vascos, rebate los tomos de las "Noticias Históricas de las Tres Provincias Vazcongadas" escritos por Juan Antonio Llorente, principal fundamento intelectual esgrimido en el siglo XIX para la abolición de los Fueros.

El descubrimiento de las notas críticas de Lerín lo realizó en San Millán José María Gorordo -precisamente buscando otras obras de Llorente-, quien comunicó a la presidencia de las Juntas Generales, por aquel entonces en manos de Ana Madariaga, el hallazgo y puso en contacto a los responsables del parlamento vizcaíno con el monasterio para ver la manera de sacar a la luz dichas obras. El exalcalde de Bilbao y exjuntero recopila en una publicación estas notas que desmienten, una a una, según su autor, las tesis defendidas por Llorente. En resumen, el padre Lerín publica sus trabajos a favor de la persistencia de los derechos históricos de los tres Territorios vascos, contraviniendo la obra de Juan Antonio Llorente, destacado antiforalista.

Ana Otadui entregó la semana pasada los primeros ejemplares de este trabajo de investigación "inédito" al fraile prior del Monasterio de San Millán de la Cogolla (La Rioja) donde descansan desde hace varios siglos los manuscritos. Con el Padre Pedro Merino pudo contemplar los papeles de Domingo Lerin y otros tesoros patrimoniales conservados en el convento. Hoy, acompañada del autor de la investigación, José Maria Gorordo, y de Mitxel Unzueta, colaborador desinteresado, exsenador y expresidente de la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, ha explicado que la aparición de los textos de Lerín representan una "agradable sorpresa" y una "experiencia única" desde que preside el parlamento vizcaíno.

Tras dar las gracias a los Padres del convento riojano Merino y Olarte "por su deinteresada ayuda", a José Mari Gorordo "por su activismo y sagacidad" y a Ana Madariaga, su antecesora, "por su sensibilidad cultural", Ana Otadui ha destacado que la publicación, presentada esta tarde ante numeroso público que llenaba la sala de conferencias de las Juntas Generales, supone "cerrar un vacío historiográfico" que rebate las tesis antiforalistas de los que en el siglo XIX se encargaron de abolir el régimen foral.

Con esta publicación, las Juntas Generales de Bizkaia "refuerzan -a juicio de Otadui- un concepto abierto de nuestros Derechos Históricos, fruto de un pacto entre dos realidades soberanas". Hoy las tesis de Fray Domingo de Lerin planteadas a principios del siglo XIX, "siguen teniendo vigencia cuando el Concierto Económico, último vestigio del régimen foral tras la abolición de 1878, es cuestionado fuera de Euskadi, pero también cuando el concepto de

"nación foral" puede abrir nuevas vías, desde la bilateralidad, para la actualización de los derechos históricos reconocidos en la Constitución de 1978 y el Estatuto de Autonomía", ha señalado.